

**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN  
70/2020 TXOSTENA**

**Gaia:** Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua desegiteko proposamena

**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundearen Izaera Nazionalerako Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.a eta d.1 artikulua

## 1. Aurrekariak

Lehenengoa.- 1990ko azaroaren 18an Bermeoko Osoko Bilkurak Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko (GOUP) estatutuak onartzea erabaki zuen.

Bigarrena.- 2020ko uztailaren 15eko Zuzendaritza batzordean presidenteordeak Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua desegiteko eta Udalean barneratzeko aukera eta jarraitu beharreko prozedurari buruzko txostena eskatu zuen.

Hirugarrena.- 2020ko abuztuaren 4an idazkariak Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua desegitearen inguruko txostena egin zuen. <sup>1</sup>

Laugarrena.- Espedientean hainbat txosten egin dira eta Idazkaritza saileko AOTak 2020ko azaroaren 13an Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua desegiteko proposamena bideratu du.

## 2. Oinarri juridikoak

### 2.1. Aplikagarria den araudia

<sup>1</sup> 2020ko abuztuaren 4an idazkariak Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua desegitearen inguruko txostena oinarritzat hartuko da (txostenak jasotakoa ez errepikatzeke).



- 1955eko Dekretua, ekainaren 17koa, Toki Korporazioetako Zerbitzuen Araudia onetsi duena (85-88 eta 30-35).
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen (22.2.f, 85.2.a.b eta 85 bis artikulua).
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubideari buruz Indarrean dauden Lege Xedapenen testu bategina onetsi duena (95.artikulua)
- 57/2003 Legea, abenduaren 16koa, toki-gobernua eguneratzeari buruzkoa.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren arrazionalizatzeari eta jasangarritasunari buruzkoa.
- Apirilaren 7ko 2/2016 Euskadiko Toki erakundeei buruzko legea (9,10,17,93-98 artikulua eta 7. Xedapen Iragankorra)
- Abenduaren 15eko 383/1987 Dekretua, Euskadiko Toki Administrazioen Erregistroa sortzen duena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.( II .Tituluko V. Kapituluak modu osagarrian)

## 2.2. Azterketa juridikoa

### Espediente administratiboari buruz

Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua desegiteko prozedura ez da zehatz-mehatz jaso, dena den, gehiengo doktrinak defendatzen du Erakunde autonomoa sortzeko bideratu zen prozedura bera jarraitu behar dela desegiteko eta ezinbestekoa dela 7/1985 Legearen 49. artikuluan zehatutako prozedura jarraitzea.

Hori kontuan izanik, momentu honetan administrazio espedienteak hurrengo izapideak eta agiriak ditu:



#### Sinadurea eta data



Agiria	Oharrak	GOUP/Udal saila
GOUPeko zuzendariaren txostena	Integrazioaren beharrezan, efikazia, efizientzia, ekonomia prozesala eta bikoizketei buruzkoa.  GOUPen eskubide eta betebeharren zerrenda egin behar da (langileria, ondarea, kontratazioa, errentak...).	GOUPeko zuzendariak
Ondarearen egoeraren azterketa eta udalean integratzeari buruzko txostena	Efikazia, ekonomia prozesala eta bikoizketei buruzkoa.  Ondarea integratzekotan eragina eta egin beharrekoa zehaztu behar da.	Idazkaritza saila
Kontratazioaren egoeraren azterketa eta udalean integratzeari buruzko txostena	Efikazia, ekonomia prozesala eta bikoizketei buruzkoa.  Kontratazio integratzekotan, eragina eta kontratazioarekin egin beharrekoa zehaztu behar da	Idazkaritza Saila
Langileriaren egoera aztertzeko eta Udalera integratzeko egokitasuna aztertzeko txostena	Efikazia, efizientzia, ekonomia prozesala eta bikoizketei buruzkoa.  Langileria integratzekotan, Udalean izango duen eragina	Langileria Saila



	<p>jasoko da.</p> <p>Langileen baldintzen inguruan ordezkaririk sindikalarekin kontsultatu beharko da</p>	
<p>Arlo ekonomiko-finantzieroko kontablearen azterketarako txostena</p>	<p>Beharria, efikazia, efizientzia ekonomia prozesala eta bikoizketei buruzkoa</p> <p>Jasangarritasuna eta egonkortasuna aztertu behar da</p> <p>Udal mailan integrazioa egiteko eragina eta baldintzak aztertu behar dira (aurrekontuan aldaketak, kontu orokorra onartzea...)</p>	<p>Ekonomia saila</p>
<p>Diruzaintza izango duen eraginaren azterketarako txostena</p>	<p>Diru-bilketan eta ordainketak egitean izango duen eragina jasoko da.</p>	<p>Diruzaintza</p>
<p>Errenta sailean izango duen eraginaren azterketarako txostena</p>	<p>Prezio publikoak eta tasak nola integraztekoan horren eragina eta zelan egin beharko litzatekeen zehaztu behar da.</p>	<p>Errenta saila</p>
<p>Antolaketa aldetik integrazioa egitearen aukerei buruzko txostena</p>	<p>Efikazia, sinpletasuna, ekonomia prozesala eta bikoizketei buruzkoa</p>	<p>ATB Saila</p>



	Integrazioa egitekotan horren eragina eta nola egin daiteken zehaztuko da (integrazioa atalka, orokorra...)	
	Erregistro eta espediente elektronikoa integratzekotan horren eragina aztertuko da	
Udal organoetan integrazioa egitearen ondorioei buruzko txostena	Informazio batzordeetan, negozioazio mahaian eta bestelako udal organoetan izango duen eragina aztertuko da.	Idazkaritza saila
Arrisku sailaren txostena	Integratzekotan horren eragina eta zelan egin beharko litzatekeen zehaztu behar da.	Arrisku saileko teknikaria
Erabaki proposamena		Idazkaritza saila
Idazkariaren txostena	128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikulua arabera	Idazkari nagusia

Momentu honetatik aurrera hurrengo izapideak eta agiriak jaso beharko dira:

Agiria	Oharrak	Erantzulea
Erakunde eta Kontu Batzorde bereziaren diktamena		Politikoki
Osoko Bilkuraren erabakia	Gehiengo osoz	Politikoki
Informazio publikoa	30 eguneko epean	Idazkaritza



erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko	BAOn, tabloian eta webgunean	saila
Integraziorako plangintza egitea	Integrazioa eragingarrian helburuarekin	modu egiteko Idazkari nagusia
Erreklamazio eta iradokizunak erantzutea (hala badagokio)		Idazkaritza saila
Informazio batzordeko irizpena, hala badagokio		Politikoki
Osoko bilkuraren erabakia		Politikoki
Behin betiko erabakiaren argitalpena	BAOn, tabloian eta webgunean	Idazkaritza saila
Komunikazioa beste erakunde batzuei	Eusko Jaurlaritzan, Bizkaiko Foru Aldundian, INEn eta Gizarte Segurantzaren berri emango da	Idazkaritza saila
Integraziorako plangintza exekutatzeko	Lehentasunak finkatu beharko dira	Ukitutako sailak

### Eskumena

Administrazio espedientearen inguruan, Osoko Bilkurak, gehiengo osoz, erabaki beharko du Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua desagitea, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.f) artikuluekin bat.

### 3. Ondorioak

Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua desagitea onartzeko proposamenari **aldeko txostena** egiten zaio.




Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe.

Dena den, Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, orri oinean zehaztutako datan

Jurdana Uriarte Lejarraga,

Idazkari nagusia

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E40005538300G8L3G9H6T5R2</p>	<p><b>Sinadurea eta data</b></p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/11/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/11/2020 15:28:56</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2020IDA_ERA_0150</p> <p>Fecha: 05/08/2020 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
---	--	--	---

